PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 120 - Kontratazio publikoa koordinatzeko zerbitzua
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoko erakundeen kontratazio publikoa modu koordinatuan, eraginkorrean, gardenean eta profesionalizatuan gidatzea, irizpide bateratuen eta tresna aurreratuen bidez kontratazioa politika publikoen tresna estrategiko bihurtuz.
Horren bidez, Aldundiaren Plan Estrategikoan jasotako helburuak bereziki jasangarritasuna, berrikuntza, gobernantza ona eta kohesio soziala kontratazioaren bitartez gauzatzea bultzatzen da, eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hizkuntza berdintasuna zeharkako irizpide gisa sistematikoki txertatzen dira, zerbitzu publikoen kalitatea eta inpaktu soziala hobetzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio publikoa eredu deszentralizatuan antolatuta dago, 10 departamentuk autonomiaz kudeatzen dutelarik urtean 2.800 kontratu inguruko jarduera. Horietatik gehiengo osoa (%90etik gora) kontratu txikiak dira, eta horrek agerian uzten du jarduera batez ere erreaktiboa dela eta planifikazio egituratuaren gabeziak daudela.
Testuinguru horretan, kontratazio planak egiteko eta ondoren betetzeko zailtasun handiak daude, eta, ondorioz, kontratazio publikoa ez da modu sistematikoan erabiltzen tresna estrategiko gisa. Horrek mugatzen du Aldundiaren Plan Estrategikoan jasotako helburuen garapena, bereziki politika publikoen jasangarritasuna, berrikuntza, kohesioa eta gobernantza kontratazioaren bidezko integrazioa.
Era berean, kontratazio publikoak oraindik ez ditu modu egituratuan barneratzen zeharkako lehentasunak, hala nola emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta hizkuntza berdintasuna, nahiz eta horiek erakundearen jardunaren ardatz nagusiak izan. Horrek erakusten du kontratazioaren bidezko inpaktu sozialaren garapena oraindik mugatua dela.
Bestalde, kontratuen exekuzioaren jarraipen eta ebaluazio mekanismoak ahulak dira, eta horrek eragotzi egiten du kontratazioaren ziklo osoaren kudeaketa eta emaitzen kontrola.
Merkatuaren ikuspegitik, parte-hartze maila baxua eta lehiaren dinamika mugatua nabarmentzen dira, bereziki esparru akordioetan hornitzaile bakarraren presentzia nagusi delako.
Azkenik, egoera hori guztia ulertzeko, funtsezkoa da kontuan hartzea kontratazio publikoa koordinatzeko zerbitzuaren baliabide mugatua. Hiru pertsonako egitura batek, aldi berean, izaera estrategikoko proiektuak (digitalizazioa, adimen artifiziala, klausula estrategikoak, prestakuntza) garatu behar ditu. Horrek mugatzen du kontratazioa eraldatzeko gaitasuna eta zaildu egiten du estrategiak modu sistematikoan ezartzea.

Beharraren deskribapen xehatua:

Diagnostikoak erakusten du kontratazio publikoa eraldatzeko esku-hartze integrala behar dela, bai kudeaketa mailan bai ikuspegi estrategikoan.
Lehenik eta behin, beharrezkoa da kontratazioaren planifikazioa indartzea, metodologia bateratuak eta tresna egokiak ezarriz, jarduera erreaktiboa gainditu eta kontratazioa politika publikoen plangintza tresna bihurtzeko, Aldundiaren Plan Estrategikoarekin lerrokatuta.
Bigarrenik, kontratu txikien pisu handia murriztu eta kontratazioaren egituraketa indartu behar da, efizientzia, gardentasuna eta baliabide publikoen erabilera egokia bermatzeko.
Era berean, funtsezkoa da kontratazioaren erabilera estrategikoa garatzea, Plan Estrategikoan jasotako lehentasunak kontratuetan sistematikoki integratuz, eta bereziki emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta hizkuntza berdintasuna kontratazio-politikaren zeharkako elementu gisa txertatuz.
Halaber, kontratuen exekuzioaren jarraipena eta ebaluazioa indartu behar dira, kontratazioaren ziklo osoa kudeatzeko eta emaitzen inpaktu erreala neurtzeko.
Bestalde, beharrezkoa da merkatuaren dinamizazioa sustatzea, lehiaren maila handituz eta enpresen parte-hartzea erraztuz, kontratazio publikoaren balio ekonomiko eta berritzailea indartzeko.
Horrez gain, kontratazio zentralizatuaren tresnak estrategikoki garatu behar dira, erosketa publikoaren arrazionalizazioa eta profesionalizazioa sendotzeko.
Azkenik, premiazkoa da kontratazio publikoaren profesionalizazioa indartzea, pertsonen gaitasunak, egonkortasuna eta prestakuntza sistematikoa bermatuz, eta tresna digital eta operatibo aurreratuak

garatuz. Horri lotuta, ezinbestekoa da zerbitzuaren baliabideak egokitzeko beharra aitortzea, planteatutako neurriak modu eraginkorrean ezarri ahal izateko.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta foru sektore publikoko erakundeak dira, bereziki kontratazio prozesuetan parte hartzen duten langile teknikoak; hala ere, jardun horren azken hartzaileak herritarrak dira, kontratazioaren bidez ematen diren zerbitzu publikoen kalitatean duen eraginagatik, eta, osagarri gisa, enpresa ehuna ere bada,kontratazio publikoan parte hartzeko baldintzak hobetzen baitira.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileak, baliabide ekonomikoak, baliabide teknologikoak; adimen artifiziala; araudia, jurisprudentzia, doktrina

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Antolaketa eta koordinazio prozesua: Sistema bateratua bermatzeko.
Planifikazio eta kudeaketa prozesua: Kontratazio planak eta horiek jarraipenak.
Aholkularitza eta laguntza tekniko-juridikoa: Kontratazio jardunaren segurtasun Juridikoa eta kalitatea bermatu.
Prestakuntza eta ezagutzaren kudeaketa: langileen profesionalizazioa.
Tresna, digitalizazio eta berrikuntza prozesua: eraginkortasuna eta modernizazioa.
Jarraipen eta ebaluazio prozesua: Kontratazioaren ziklo osoa kudeatzeko.
Kontratazio estrategikoa integratzea: politika publikoak kontratazioan txertatzeko.
Kontratazio zentralizatuaren kudeaketa hobetzea: efientzia lortu, lehiari ahalik eta gutxien eraginez.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Irizpide eta gidalerro bateratuak: Kontratazio irizpide juridiko eta teknikoak, jardunbide egokiak eta gidak.
Kontratazio planak, eta jarraipen txostenak.
Aholkularitza tekniko espezializatua.
Prestakuntza eta gaitasun profesionala.
Tresna operatibo eta digitalak.
Jarraipen eta ebaluazio sistemak.
Klausula estrategikoak eta politika publikoen integrazioa.
Kontratazio zentralizatua hobetzeko proposamenak.

Programaren arau esparrua:

Europa mailakoa:
2014/24/EB Zuzentaraua, administrazio publikoen kontratazioari buruzkoa
2014/25/EB Zuzentaraua, sektore berezietan jarduten duten erakundeen kontratazioari buruzkoa
2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuei buruzkoa
Europako Batzordearen komunikazio eta orientabideak:
Erosketa publiko berdea (GPP)
Kontratazio sozial arduratsua
Erosketa publiko berritzailea
Estatuko araudia:
9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL)
817/2009 Errege Dekretua, kontratazioaren garapen partzialа
1098/2001 Errege Dekretua, administrazio publikoen kontratazioaren erregelamendua (indarrean dagoen neurrian)
Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen irizpide eta jarraibideak

EAEkoa
Emakume eta gizonen berdintasunerako araudia:
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea
Berdintasun plan eta estrategiak
Hizkuntza berdintasunari buruzko araudia:
Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea
Euskara sustatzeko plan eta politikak administrazioetan
ALDUNDIA

6/2013 Foru Araua
11/2014 Foru Araua
Administrazio arloko arau orokorrak

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Kontratazio sistema koordinatu, planifikatu eta eraginkorra garatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Topaketa teknikoen kopurua	Kopurua	>=	3,00	3,00	3,00	10,00
Topaketetan parte hartze maila	Kopurua	>=	60,00	60,00	60,00	200,00
Kontratazio planaren betetze maila	Ehunekoa	>=	60,00	0,00	0,00	60,00
Kontratu txikiak kontratazio osoaren gainean (kontratu kopurua)	Ehunekoa	<=	90,00	0,00	0,00	90,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Koordinazio egiturak egonkortu

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**25.363,13**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Urtean hiru topaketa tekniko planifikatu eta egin	17.137,25			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Topaketen parte hartzaile sare egonkorra definitu	8.225,88			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Irizpide bateratuak garatu

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**10.967,84**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
2.1 Ekintza Lehentasunezko gaiak identifikatu	10.967,84			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Planifikaziorako metodologia ezarri



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**36.645,48**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Kontratazio aplikazioan planifikaziorako metodoa ezarri, eta jakinarazi	9.225,88			2027/01/01	2027/12/31	
3.2 Ekintza Planaren betetze maila aztertu	13.709,80			2027/01/01	2027/12/31	
3.3 Ekintza Kontratu txikien azterketa bat egin, eta alternatibak proposatu	13.709,80			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Kontratazio publikoaren kalitatea, gardentasuna eta segurtasun juridikoa indartzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Egindako aholkularitza jardueren kopurua	Kopurua	>=	100,00	0,00	0,00	300,00
Kontsultei erantzuteko batez besteko denbora	Egunak	<=	7	0	0	5
Errekurtso edo inpugnazioen ehunekoa	Ehunekoa	<=	5,00	0,00	0,00	5,00
Prozedura baliogabetuen ehunekoa	Ehunekoa	>=	2,00	0,00	0,00	2,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Aholkularitza lanak indartu



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**41.129,40**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontsulta lanak sistematizatu	27.419,60			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Ohiko kontsulten, eta interesgarrienen laburpenak langilegoaren artean zabaldu	13.709,80			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Kontratazio publikoa politika publikoen tresna estrategiko bihurtzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Kontratuaren ezaugarrietara egokitutako klausula sozial eta ingurumenekoak dituzten kontratuen ehunekoa	Ehunekoa	>=	60,00	0,00	0,00	60,00
Kontratuaren ezaugarrietara egokitutako genero-berdintasun klausulak dituzten, edo eduki ezean justifikazio egokia jasotzen duten kontratuen ehunekoa	Ehunekoa	>=	90,00	0,00	0,00	50,00
Kontratuaren ezaugarrietara egokitutako hizkuntza-irizpideak txertatua dituzten kontratuen ehunekoa	Ehunekoa	>=	50,00	0,00	0,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Kontratazio publiko estrategiko eta arduratsua



% 54,16



% 8,30



% 37,54

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**82.636,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontratu estrategikoak identifikatu	13.709,80			2027/01/01	2027/04/30	
1.2 Ekintza Genero-berdintasuna: berdintasun gida amaitu eta jakinarazi	22.335,68			2027/01/01	2027/06/30	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.3 Ekintza Genero-berdintasuna: klausulen jarraipena egin - pilotuak	27.396,80			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Hizkuntza-berdintasunerako irizpideak definitzen jarraitu	19.193,72			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Kontratazio publikoaren profesionalizazioa, digitalizazioa eta berrikuntza sustatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	Kopurua	>=	100,00	0,00	0,00	300,00
Prestakuntzaren asebetetze maila	Kopurua	>=	8,00	0,00	0,00	8,00
Kontratazioa modu integralean kudeatzeko aplikazioaren hedatze maila, zenbat departamentu	Kopurua	>=	8,00	0,00	0,00	8,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Prestakuntza



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**28.919,60**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Ikastaroak definitu eta eskaini	28.919,60			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Digitalizazioa eta berrikuntza



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**72.704,11**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Aplikazioaren inplementazioaren lehenengo fasea gauzatu	50.355,28			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Kontratazio publikoan adimen artifiziala aplikatzeari buruzko pilotua gauzatu	22.348,83			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Kontratazio publikoaren arrazionalizazioa

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**7.540,39**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Arrazionalizazio sistema berriak bultzatu	7.540,39			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen kontratazioetan emakume eta gizonaren arteko berdintasunari buruzko klausulak sartzea ezinbestekoa da; baina, klausula hauek sartzerakoan kontratu bakoitzaren ezaugarriak, kontratuaren objektu bakoitzaren sektorearen ezaugarriak, eta sektore horretan emakume eta gizonen berdintasunean izan daitezkeen arazoak kontuan hartu beharko dira. Zailtasunak daude klausula mota hauek zehazterakoan, lizitazioan aplikatzerakoan eta kontratuaren exekuzioan jarraipena egiterakoan.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hemen bi alderdi daude. Lehenengoa, zerbitzuari dagokionean, euskarazko administrazio atala izendatu gaituzte, eta horrek suposatzen dituen aldaketan egiteko plangintza egin behar dugu. Bestalde, kontratazioari dagokionez, hizkuntza klausulak sartzeko garaian tentu handiz ibili behar dugu, segurtasun juridikoa bermatu behar dugu.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2027 Proiektu Estrategikoan jasotako politika publikoak aurrera eramaten laguntzeko ezinbesteko tresna da kontratazio publikoa, Barne Produktu Gordinean duen pisua kontuan izanda. Kontratazio publikoa modu estrategikoan erabili behar da, politika publiko zehatz horien laguntzan (krisi klimatikoaren aurkako borroka, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, gizarte kohesioa, ...) erabiliz, eta era berean, lurraldeko operadore ekonomikoak traktore bat izan, lehiakortasuna irabaziz. Zalantzak ditugu kontratazio publikoaren izaera estrategiko hori benetan barneratuta dagoen Aldundian, eta honek, ikuspuntu honek eskaintzen duen potentzialtasun guztia ez aprobetxatzea ekarri dezake.

Kuantifikazioa: 305.905,95 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
4 KALITATEZKO HEZKUNTZA	4-Kalitatezko hezkuntza Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	**28.919,60**	
Helburua	4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.	28.919,60	
	Ekintza lerroak		
	Prestakuntza	28.919,60	
5 GENERO BERDINTASUNA	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	**44.759,23**	
Helburua	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	44.759,23	
	Ekintza lerroak		
	Kontratazio publiko estrategiko eta arduratsua	44.759,23	
8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	**79.559,01**	
Helburua	8.08 - Lan eskubideak babestea eta lan ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.	6.854,90	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	Ekintza lerroak		
	Kontratazio publiko estrategiko eta arduratsua	6.854,90	
Helburua	8.02 - Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.	72.704,11	
	Ekintza lerroak		
	Digitalizazioa eta berrikuntza	72.704,11	
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**152.668,11**	
Helburua	16.05 - Era guztietako ustelkeria eta eroskeria nabarmen murriztea.	4.612,94	
	Ekintza lerroak		
	Planifikaziorako metodologia ezarri	4.612,94	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	88.768,68	
	Ekintza lerroak		
	Koordinazio egiturak egonkortu	8.568,62	
	Irizpide bateratuak garatu	10.967,84	
	Planifikaziorako metodologia ezarri	19.193,72	
	Aholkularitza lanak indartu	13.709,80	
	Kontratazio publiko estrategiko eta arduratsua	28.788,30	
	Kontratazio publikoaren arrazionalizazioa	7.540,39	
Helburua	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera.	59.286,49	
	Ekintza lerroak		
	Koordinazio egiturak egonkortu	16.794,50	
	Planifikaziorako metodologia ezarri	12.838,82	
	Aholkularitza lanak indartu	27.419,60	
	Kontratazio publiko estrategiko eta arduratsua	2.233,57	
Guztira		**305.905,95**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	268.902,00	274.196,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	32.524,00	31.710,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**301.426,00**	**305.906,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**301.426,00**	**305.906,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		274.196,00				274.196,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		31.709,95				31.709,95
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		**305.905,95**				**305.905,95**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		**305.905,95**				**305.905,95**